

EUSKAL EXONIMOEZ

Jose Luis LIZUNDIA

Euskara ofizialdu denez eta ofizialtzen doan heinean, bai irakaskuntza eta bai komunikabideetan berezki, gai hau noizbait Euskaltzaindiak eta honen barnean dagokion Onomastika batzordeak aztertu beharra duela uste dut. Oraintsu baten ETBko esatari adiskide batekin izandako elkarrizketa hartuko dut horren lekuko. Alde batetik, «Gaur Egun» emankizuneko esatariak Asturiasko hiri handiena esateko, bi izen erabili zituzten batak albistegi orokorrean *Gijon* eta besteak, futboleko berrikeriak, *Xixon* esan zuzen asturiano edo bablez. Esan nionean bazegoela hirugarren bat euskal exonimoa, galdetu zidan: eta zein da ba hori? *Kixoi* esan nion eta horren lekukotasuna euskal itsas-portuetan dago bizirik gaurdaino eta Imanol Berriatuak bere lanetan bildua-. Arantzaleen eta marinelen artean *Sanadere / Santander* esateko erabiltzen den bezalaxe.

Telebistako kazetari honen solasaldian hau atera zen, ea zergatik Euskaltzaindiak ez lukeen egingo horrelako zerrenda bat, beraientzako lagungarri izango bai zen. Hain zuzen ere beste adibide bat jarri nion berari, oraintsu Abiadura Handiko Trenaren arazoa dela eta, *Bordelera* iritsi ondoren, hurrengo epe batean, *Dax*-era iritsiko zela errepikatzen zuen ETBk, jakin gabe izen horrek baduela aspaldiko euskal exonimoa, Iparraldean bizirik dagoena: *Akize*.

Honetaz esan behar da orohar hobeki gorde direla Iparraldean euskal exonimoak, inguruko herri eta hirientzat, Hegoaldean baino, nahiz eta alderdi honetan ere egon diren, geroago ikusiko dugunez.

Barcelonan Generalitateko «Institut Cartogràfic» delakoaren arduradun den Benjamin Sabiron jaunarekin hiriburu hartan egon nintzenen -dakizuenez jaun hau Euskaltzaindiaren I. Onomastika Jardunaldietan izan zen gurekin Gasteizen txosten interesgarri bat eman zuelarik- eta berari galdetu zer jokabide erabiltzen zuten exonimoekin, hauxe erantzun zidan: Kataluñako, herri, hiri eta herrixketan, katalan toponimoa bakarrik erabiltzen zutela, salbu Aran ibarrean, honetan gaskoina errespetatzen zutelako. Inguruetako herrietan, mapa batek beti muga edo inguruko herriak hartzen bai ditu, jokabide hau erabiltzen zutela, bertako ofiziala

batetik eta baita ere katalan exonimoa dutenean besterik, barra, batekin, adibidez *Osca / Huesca, Saragossa / Zaragoza, Terol / Teruel, Tolosa / Toulouse* eta abar. Berak esan zidan exotoponimoen fenomeno hau antzera baten jokatu beharko genukeela, Estatuko nazionalitate desberdinen artean, bai guk, bai beraiek eta bai galegoek. Beraz, alderdi horretatik ere arazo honi heldu beharra dago.

Beste eremu bat ezin ahantzia irakaskuntzarena da. Gure seme-alabek ikasten bai dituzte geografi izen mordo bat eta hor ere erizpideak argitu beharra dago. Dena dela, gehienbat komunikabideen galdeari erantzun beharra dugula uste dut.

Jarraian, zerrenda bat egingo dut ez zehatz edo exhaustiboki burutua, baizik eta ezagunenak izan daitezkeeni erantzun bat emateko.

Iparaldeaz hasiko naiz. Louis Dassance euskaltzain izan zenaren *Herri eta herritarren izenak eskuaraz* izeneko lanarekin baliaturik: Bordeaux / Burdeos / Bordele, Toulouse / Tolosa, Dax / Akize, Oloron / Oloroe, Pau / Pae, Paris / Parise, Lyon / Lione, Marsella / Marzella (uste dut srekin hobe litzatekeela), Hambre Grazia / Le Havre, Tarbes / Tarbe, Lourdes / Lourda, eta abar. Beste txikiago batzuk ere aipatzen ditu eta Euskal Herriaren mugakoak direnetik, kontutan hartzekoak: Boucau / Bokale, Tarnos / Ternose, Saint Vicent de Tirossce / Sainbizenze, Sauveterre / Salbaterra, Orthez / Orthese, Salies / Salise, Ance / Arhantze, Angous / Angastue, Arancou / Erango, Arette / Ereta, Arrive / Arriba, Autevielle / Autile, Barlanes / Sarralzune, Carrese / Karrese, Castetnau / Gazteluberri, Charre / Xarre, Escos / Ezkoze, Espiute / Azpilda, Eyus / Isuazi, Féas / Inhasi, Geronce / Jeruntze, Geüs / Ustasu, Guinarthe / Ginarthe, Josbaigt / Josibaia, Labastide-Villefranche / Bastida-Xarre, Lanne / Landa, Lescun / Laskun, Lichos / Lixoze, Meritein / Meritiñe, Monein / Muneñe, Navarrens / Nabarregose, Nabas / Nabarzi, Saint-Goein / Sanguieñe, Sames / Samatze, Sus / Xütxe.

Hego Euskal Herriari dagokionez, interesgarri lirateke euskal exonimo jakin bi aipatzea, nahiz eta muga barnean egon, Bizkaia eta Nafarroako muga barnean: Tudela / Tutra / Tudelarentzat, hain ezaguna dena / zena Zaraitzu eta Erronkarin; eta Karrantza / Carranza Euskal Herriko behirik gehien duen ibar-udal famatua. Enkartazio mendebaldean dagoen herria, agian, euskararik ezagutu ez duenak, baina euskal baserritar askorentzat ezaguna den *Karrantza* exonimoduna.

Sanandere / Santander egungo Cantabriako hiriburuaren izena oraindik biziirik dirau arrantzaile eta marinelen artean. Baita ere lehenago esan bezala Kixoi / Gijón gaztelaniazko Asturiasko portu hiri nagusiaren izena. Logroño / Logroño euskaldun askok deitzen duten eran Errioxako hiriburuaren izena har dezakegu, lekukotasunak ere badira eta dokumentazioa ere aurki daitzakeela uste dut. Izen hau finkatzea behar beharrezkoa dugu, zeren eta Euskal Herriko mapa guztietan mugakide aurkitzen bai dugu. Hiri hau, historikoki hainbeste harreman izan dituen bestalde Euskal Herriarekin. Bidenabar esan dezagun Errioxako euskal izendun herrien zerrenda ere egin beharko litzatekeela hasi Nafarruri / Casalareinatik eta Ezkarai artio bederen.

Madril dugu beste exonimo jakin bat. Erreinuko Gorte eta Estatuaren hiriburu denarena. Andaluziako hiriburuak euskal exonimo ezaguna du: Sibilía, aspaldiko lekukotasunak dituena. Berrikitan aurkitu ditugu Ihorretako «Eguren Zuri» kantetan Sibirija / Sibirije formak eta Kariz, Cadiz portua hiri famatuarentzat¹. Beharbada euskal kantuetara joan beharko genuke, besterik ezean, bilaketa interesgarri bat egiteko. Ingalaterrako hiriburuak badu exonimo jakin bat Londres euskaldunen ahoetan «Peru gurea Londresen» eta abar. Normandiako hiriburuak ere Erruan / Rouen. Frantziako Aunis probintza txiki baten hiriburu izandako, baina euskal historiak herremanak aspalditik izan dituen portu garrantzitsu batek La Rochellek ba du euskal exonimoa Erroxela. Nola ez Brugge / Brujasek, hainbeste harreman euskal portuekin, bereziki Bilborekin izandako hiri horrek. Begiratu beharko litzateke Europako mendebaldeko portu nagusien izendegia eta seguru asko aurkituko genituzke euskal exonimo jakingarriak.

Ekialdera, Aragoira, ere begiratu beharko genuke. Oroitzen naiz Jon Etxaidek aspaldi idatzitako «Uri eta toki-izen batzuen euskal izendegia, orain arte bildutakoen osagarri ikerlana». (Ikus *Egan* 1961, 216-249 orr.). Aipatzen zituela zenbait izen Nafarroako ipar ekialdeko euskaldunak ezagutuak edo erabiliak, hala nola Sause / Sos del Rey Católico, Deustia / Tausterako eta abar. Agian, Pirineoko gaurko Aragoiko ibarrak izango zuten euskal izen bat baino gehiago. Salduba ere agertu da Zaragozaren ordain bezala.

Beste exonimo talde bat Mundu Berrikoa izango litzateke, hala nola, Karatxeta, etxean maiz entzun duguna, Caracas deitzeko. Filipineta / Filipinasentzat eta abar.

Amaitzeko eta laburbilduz, agian, zerrenda sailkapen bat egin beharko litzateke. Esate baterako honela:

1. *Iparraldearekikoak.*

1.1. Euskal Herriaren mugakoak, hasi Ternosetik eta Baretuz ibarrerainokoak. Batzuk izen gaskoin—euskaldundu exonimoak eta beste batzuk, euskal erroti-koak.

1.2. Gaskoin herrialdean, hots, egungo Akitania eta Midi-Pyrénées herrialdeetako hiri nagusienak: Bordele, Pabe, Tolosa, eta abar.

1.3. Iparraldeko euskaldunek erabiltzen dituzten Frantziako errepublika barneko beste zenbait hiri gogor, Paris / Parise, Lyon / Lione eta abar.

2. *Hego Euskal Herrikoak.*

2.1. Hego ekialdekoak, alegia, Aragoikoak, Sause, Deustia eta abar.

¹ PEÑAFLORENDA Kondea, 1762, *Gavon-sariak*, Azcoytin, 5. or.

- 2.2. Hego erdialdekoak, hots: Errioxa eta Gaztelakoak: Logroño eta abar.
- 2.4. Espainia Erreinuko barneko hiri nagusi zenbait: Madril, Sibilía eta abar.

3. *Munduan zeharkakoak.*

- 3.1. Europakoak.
- 3.2. Ameriketa eta Filipinetakoak.

Txosten honekin dei bat egitea nahi nuke eta hau da: norbaitek aipaturiko izenei buruz xehetasun gehiagorik balu, eskatuko nioke Onomastika batzordera igortzea. Baita ere izen berririk balu. Euskal komunikabide eta irakaskuntzari orohar euskararen hedapenaren mesedetan, izango da, dudarik gabe.

«Eguen Zuri» koplak

Eguen Zuri honetan
hasi gara gu kantetan
Maixu jaunaren dixipuluak
etxeke jaunen atetan.

Ule trentzia gerriraño
seda mantoia lurreraño
bedorrenlangorik ez dauela
Sibirijatik honaño.

Sibirija ta Granada
urdaiazpije ona da
urdaiazpije ona da baña
hiru lukainkaz hoba da.